

MESIAS EDO MUNDUAREN SALBATZALLEA.



ARTZAI-JOLAS SAGRADUA, POLION BIRJILIORENARENANTZEKOA.

¡Asi itzazute zuen kantak, Jerusalengo alabak, eta doñuen goyandek dagokiola gayaren aunditasunari. Ez ditugu gogokoak iturrietako kristalak, basoetako itzalak, Pindoren ametsak eta ez Musen trataerak... Zuri bakarrik deitzen dizut, aldareko suarekin Isaias-en ezpañak garbitu ziñituen orri.

Profetak, etorkizun zeuden denborak espirituan ikusirik, zion: Emakume bat aurdun egingo da, donzella batek seme bat argitaratuko du. Nik ikusten det muskill ederra irteten Jeseren zañetik; lore sagradu onek beteko du zerua bere lurriñ gozoarekiñ; zeruko espirituak mugituko ditu aren ostoak mar-mar ots isillochoarekin, eta jarriko zayo gañean uso misteriozkoa. Jechierazo, o zeruak, jechierazo intz prezioso ori munduaren isiltasun errespetagarriaren erdian.

Landare ongarri orrek argalai emango die indarra, eriarri osasuna, estalpea ekaitzean, eta itzal atsegiñgarria denbora beroetan. Utziko dira gaiztakeria guziak, itzali anziñako engañoia, zuzentasuna agertuko da berriro pisua eskuan duela, eta oliba erramuak pakea munduan zabalduaz, jechiko da ostera zerutik inozentzia garbia. Irristatu zaitez azkar, o denbora, eta ekarri zaguzu Beti danaren eguna.

Atoz, Aur Jainkoa, agertu zatzazkigu, sortitza datorkigu presaka eskeintzera ala bere aurreneko loreak, nola udaberriak banatzen dituen urriñ gozo guziak; Libanoko zedroak makurtzen dituzte beren kopeta goitituak; basoak salto egiten dute mendietan; inzensuaren keak alchaitzen dira beeko ibarretik, eta Karmengo mendi tontor loretutik igozten dira likurtak odehyetaraño;

¿Ez dezute aditzen? ¿zér uju pozkariozkoa da eremuan aditu dana?

Prestatu bidea. ¡Jaungoikoa da datorrena, Jaungoikoa! Mendietako oyarzunak eranzuten dute: ¡Jaungoikoa, Jaungoikoa! Beti danaren gloria jeisten da zugana, o lurra, ar ezazu doai guziz estimagarri au: beerratu zaitezte, mendiak, alcha ibarrak, makurtu zedroak Berari agur egiteko, biguñdu bitez arrokak, eta erreka sistorretan banatu ibai biziak. Salbatzallea dator, ¡anziñako profetak aldeareuz erakutsia! Entzun zayozute gorrak, begiratu ichuak. Biurtuko die begietako ikustea galdua daukatenai, eta ikusiko dute argia, sendatuko ditu gorrak eta lilluratuko ditu doñu atsegingarriakin, mutuak kantatuko du, eta urgunak pozez beterik salto egingo du basauntzak bezela.

Mundu zabalean ez da adituko gaur gero sispururik eta marmariza gaistorik, eta begiak geratuko dira malko gabe, eriotza izango da burnizko kateaz lotua, eta infernetako agintari biurria *marruaka* egongo da beti bere aginte galduaren errañu artean.

Nola artzayak eramaten duen ganadua barruti preskoetara egurastutuzera, eta ardi sakabanatuak bildurik, egunaz erreparatu eta arratsean aen kontuan egoten dan, arkume guriai bere eskuz jaten emanaz eta bere kolkoan berotuaz ¡ala artzai Jainkozkoak kontu egingo die gizonai kariño biguñenarekin! Bera da geroko denboretako aita. Ez da alchako geroz erreinua erreinuaren kontra: soldadu biotz gabeak ez dira elkar chikitzen ariko eriotzeko amorruekin; ezpata iltzallerik ez da ikusiko gure kanpoetan, ez tronpeta soñuak ere piskortuko du gerrarien arrabiarik. Lantza armakin, serbitzurik ez dutelako, egingo dira poda-labana makurrak, eta ezpatakin nekazaritzarako arre-ortzak.

Orduan alchako dira eche galant edo jauregiak semeak bukatuko du pozez aitak asitako obra, eta gozatuko ditu egun paketsuak maastaren itzalean, frutuak biltzen dituela azia erein zutenak berak. Atsegiñ arrigarriarekin ikusiko du artzayak nola lirio eta belar loretuak sortzen diran lur elkorretan, eta eyaka joango daeremu tristera, nun ur garbi biziak beren murmur gozoakin poztuko diozkaten belarriak. Lenago pistien etzauntzak ziran arkaitz-zuloak kanabeladi ugariz edertuko dira; piñu eta oliboak ikusikodira lenago larrez estaliak zeuden ibar legorretan, palma lirañak arbola sastrakaen ordez, eta belar puzoitsuzkoetan arrayan usai gozozkoak. Otsoak ibilliko dira larrean arkumeakin batean; aurrak eramango ditu katamotzak noranai lorezko lazoakin, eta iransugeak milliskatuko du bidezkoaren oña.

Aurrak, bularra eragotzi orduko maitatuko ditu farraz zirau eta

beste sugeak, eta aen koloreak lilluraturik, egingo diezte jostaketak mingañarekin. ¡Alcha!, Jerusalem, alcha zure kopeta eder eta lorez koroatu ori! Begira ze ondore ugariak estaliko duen zure Eleiza aundia, oekdira zugandik sortuko diran semeak; estutzen dira zure sabelean, bizitzan eta santuen bizilekuan artuak izateko gloria billatu nayeian. Begira urrutietako erri oriek nola urbiltzen diran zugana, zure argitan ibilli, eta zure Eleizan belaunikatuaz. Begira nola banatzen dan Sabako inzensoa zure aldare argi ederretan, eta uzten dituzten erregeak beren koroak. ¡Begira zeru izarrez jantzitako ori nola irikitzen dan, argitasunezko ugaldez bete zaitzan!.... ¡Jaunaren betiko eguna asten da! Ichasoak agortuko dira, zerua iñor gabe gelditu, arrokkak eroriko dira auts egiñik, eta mendiak ezkutatu; baña munduaren Jaun eta Jabearen itza ez da aldakorra; aren agintea osasun guziz irmezkoa, eta Jargoya beti dirauena; au da Mesias-i agindua zegokion erreinua.

MANUEL A. ANTÍA-KOAK.

(POPE Ingelesak izkribatu zuenetik euskaratua.)

